

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

#### Diputatuen Kontseiluaren 23/2016 Foru Dekretua, martxoaren 1ekoa, aldatzen dituen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren arautegiak

Foru Dekretu honen xedea da aldatzea Arabako Lurralde Historikoko tributu sistemako bi zuzeneko zerga nagusien erregelamenduzko garapenaren zenbait alderdi.

Hain zuzen ere, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari eta sozietateen gaineko zergari dagokienez, beharrezkoa da haien arauketa egokitzea Europar Batasunaren Justizia Auzitegiak C-678/11 gaiari buruz emandako 2014ko abenduaren 11ko epaiaren arabera, zeinak europar araudiaren kontratuzat jo baitzuen, Europar Batasuneko beste estatu kide batean helbideratutako pentsio funtsen eta aseguru entitateen kasuan, batzuen zein besteen zerga-ondorioak direla eta, Espainian haien ordezkari bat izendatzeko obligazioa, pentsio funts horiek Espainian espainiar legediaren peko enpleguko pentsio planak garatzen badituzte, edo aseguru entitate horiek zerbitzuak libreki emateko araubidearen arabera jarduten badira Espainian. Hori dela eta, aldatu egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 83. artikulua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 52. artikulua.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak honi buruz egindako txostenak aztertu dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT

##### **1. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamendua aldatzea**

Idazketa berria ematen zaie 40/2014 Foru Dekretuaren 79. artikulua 2. paragrafoko e) eta f) letrei (40/2014 Foru Dekretua, abuztuaren 1ekoa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergaren Erregelamendua arautzen duena). Hona nola geratzen den:

“e) Zerbitzuak libreki emateko araubidearen arabera jarduten diren aseguru entitateek Espainian egiten dituzten eragiketetan, atxikipena edo konturako ordainketa egin beharko dute egoitza Europako Eremu Ekonomikoko beste estatu kide batean duten aseguru entitateek.

f) Europar Batasuneko beste estatu kide batean helbideratutako pentsio funtsek, espainiar legediaren peko enplegu pentsioko planak garatzen badituzte, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/CE Zuzentarauan ezarritakoaren arabera (enpleguko pentsio funtsen jarduerari eta haien ikuskapenari buruzkoa), atxikipena egin beharko dute Araban egiten dituzten eragiketetan”.

##### **2. artikulua. Sozietateen gaineko zergaren erregelamendua aldatzea**

Idazketa berria ematen zaie 41/2014 Foru Dekretuaren 52. artikulua 7. paragrafoari (41/2014 Foru Dekretua, abuztuaren 1ekoa, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena). Hona nola geratzen den:

“7. Zerbitzuak libreki emateko araubidearen pean jarduten diren aseguru entitateek, Araban gauzatzen dituzten eragiketetan, atxikipena edo konturako ordainketa egin beharko dute, egoitza Europako Eremu Ekonomikoko beste estatu kide batean badute”.

#### AZKEN XEDAPENA

Lehenengoa. Indarrean sartzea.

Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean, eta 2016ko urriaren 1etik aurrera hasiko da ondorioak eragiten.

Bigarrena. Gaitzea.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari baimena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 1a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ**

*Ogasun zuzendaria*

**TERESA VIGURI MARTÍNEZ**